



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2022-09-27an EGINDAKO OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 27-09-2022.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Nestor Arana Arexolaleiba
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2022ko irailaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da ohiko udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Ana Belen de Castro Ramos, Eluska Irazu Henández, Dorleta Sologaiettoa Aguiriano eta Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 27 de setiembre de 2022 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el de la Corporación en sesión bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Ana Belén de Castro Ramos, Eluska Irazu Henández, Dorleta Sologaiettoa Aguiriano y Ander Errarte del Pozo

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAC92C3.aqs8>

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario
2022/09/27



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Bilkura hasi aurretik, alkateak, udalbatzaren izenean, gaitzespen osoa adierazi du Benidormen izandako hilketa matxistaren aurrean.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2022-06-26 eta 2022-07-18.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2022ko irailaren 21era arte hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 17. eta 18. espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

3.- AURREKO URTEETAN ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturik egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espediente onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboak eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

22/01/01 etik 22/03/31 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK

IFZ	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	KUOTA	ERREKARGOA	GUZTIRA	ZERGATIA
B01215474	JARDUERA ENPR.	2013	33 A027025 420C	79,93	15,98	95,91	PREZKRIZIOA.GEA
B01215474	JARDUERA ENPR.	2014	34 A027025 420B	103,83	20,76	124,59	PREZKRIZIOA.GEA
B20680526	JARDUERA ENPR.	2017	37 A020875 4200	702,99	140,59	843,58	PREZKRIZIOA.GEA
B20680526	JARDUERA ENPR.	2017	37 A020875 520W	527,22	105,44	632,66	PREZKRIZIOA.GEA
B43687375	JARDUERA ENPR.	2017	37 A030132 2206	527,22	105,44	632,66	PREZKRIZIOA.GEA
B48300271	JARDUERA ENPR.	2017	37 A022425 520D	246,05	49,21	295,26	PREZKRIZIOA.GEA
B75097030	JARDUERA ENPR.	2017	37 A041940 720F	2.759,19	551,83	3.311,02	PREZKRIZIOA.GEA
B09397134	JARDUERA ENPR.	2017	37 A025253 820J	492,08	98,41	590,49	PREZKRIZIOA.GEA
J01117555	JARDUERA ENPR.	2017	37 A009307 4207	615,12	123,02	738,14	PREZKRIZIOA.GEA
B20473385	JARDUERA ENPR.	2017	37 A026807 420J	572,54	114,50	687,04	PREZKRIZIOA.GEA
A01048040	JARDUERA ENPR.	2017	37 A007787 220D	527,22	105,44	632,66	PREZKRIZIOA.GEA
E20873709	JARDUERA ENPR.	2017	37 A028678 820K	11.408,36	2.281,67	13.690,03	PREZKRIZIOA.GEA
GUZTIRA				18.561,75	3.712,29	22.274,04	

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

4.- KREDITUAK ALDATZEKO 19. ESPEDIENTEA: KREDITU TRANSFERENTZIA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 19. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespun proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 19. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0300.227.231.70.26 2022	ZERBITZUA:BABESI GABEKO EGOERAK	111.237,50	53.164,04	58.073,46
1 0200.160.230.00.01 2022	GIZARTE- ASEGURANTZA:GIZATE ONGIZ	31.343,36	10.000,00	21.343,36
1 0200.160.342.20.01 2022	GIZARTE- ASEGURANTZA:KIROL D EGIA	20.555,17	11.000,00	9.555,17
1 0200.131.333.20.01 2022	ALDI BATERAKO PERT:IBARRAUNDI MUS.	28.245,55	9.446,85	18.798,70

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1 0200.131.430.00.01 2022	ALDI BATERAKO PERT:TURISMO-MERK.	23.994,59	4.723,42	19.271,17
1 0200.131.170.00.01 2022	ALDI BATERAKO PERT:INGURUMENA	29.315,89	4.723,42	24.592,47
1 0200.160.430.00.01 2022	GIZARTE- ASEGUR:TURISMO- MERKATARITZA	7.927,57	1.107,20	6.820,37
1 0200.121.342.20.01 2022	DESTINO OSAGARRIA:KIROLDEGI A	9.733,25	2.774,00	6.959,25
1 0200.121.342.20.02 2022	BERARIAZKO OSAG:KIROLDEGIA	33.214,55	12.000,00	21.214,55
1 0200.160.170.00.01 2022	GIZARTE- ASEGURANTZA:INGURU MENA	9.662,32	600,00	9.062,32
1 0100.420.419.00.01 2022	DIRU LAGUNTZA:GOILARRE PROGRAMA	13.060,00	13.060,00	0,00
1 0200.160.333.20.01 2022	GIZARTE- ASEGURANTZA:MUSEO A	9.330,02	1.435,11	7.894,91
	GUZTIRA	327.619,77	124.034,04	203.585,73

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntz a	Amaierako kreditua
1 0600.480.335.00.01 2022	DIRU LAGUNTZA:EUSKARA	2.000,00	510,00	2.510,00
1 0600.226.335.00.08	EKINTZAK:EUSKERA	25.000,00	6.690,71	31.690,71

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2022				
1 0500.226.432.00.08 2022	EKINTZAK:TURISMO	7.500,00	2.500,00	10.000,00
1 0400.481.341.10.01 2022	DIRU LAGUNTZA:ESKOLA- KIROLA	32.055,62	133,33	32.188,95
1 0400.481.341.20.01 2022	DIRU LAGUNTZA:ESKORIATZA.KIR OL ELKARTEA	33.200,00	1.600,00	34.800,00
1 0100.227.311.00.11 2022	KONT.DESINFEKTAZIOA,ARR ATOI HILKETA	4.628,59	600,00	5.228,59
1 0100.221.323.40.01 2022	ENERGIA ELEKTRIKOA:L.EZEIZA IKAST.	7.462,55	2.000,00	9.462,55
1 0100.221.326.10.01 2022	ENERGIA ELEKTRIKOA:MUSIKA ESKOLA	2.737,71	2.000,00	4.737,71
1 0400.220.332.10.02 2022	PRENTSA,ALDIZK,LIBURUAK:L IBURUTEGIA	2.800,00	2.000,00	4.800,00
1 0600.227.491.00.39 2022	SARE SOZIALAK,PARTE- HARTZE PLANA	2.000,00	3.000,00	5.000,00
1 0100.221.333.10.01 2022	ENERGIA ELEKTRIKOA:KULTUR ETXEA	5.509,84	2.700,00	8.209,84
1 0100.221.333.10.02 2022	UR KONTSUMOA:KULTUR ETXEA	85,07	1.200,00	1.285,07
1 0100.212.333.10.02 2022	MANTUA:GALDARAK:KULTUR ETXEA	350,90	1.100,00	1.450,90
1 0100.212.342.30.01 2022	MANTUA:MAKINAK:IGERILEKU A	6.523,58	14.000,00	20.523,58
1 0100.214.342.20.01 2022	MANTENIMENDUA:ALTZARIAK	0,00	1.000,00	1.000,00

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

	ETA LANABESAK			
1 0100.211.342.10.01 2022	MANTENIMENDUA:PILOTALEK UA	1.137,39	1.000,00	2.137,39
1 0100.212.342.20.01 2022	MANTUA:MAKINAK:KIROLDEG IA	11.114,00	1.500,00	12.614,00
1 0100.221.342.20.03 2022	GASA:KIROLDEGIA	51.530,07	12.000,00	63.530,07
1 0100.221.342.20.02 2022	UR KONTSUMOA:KIROLDEGIA	7.918,04	4.000,00	11.918,04
1 0200.227.920.00.07 2022	AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK:ADM.OROKORRA	19.370,00	6.000,00	25.370,00
Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntz a	Amaierako kreditua
1 0200.226.920.00.03 2022	PUBLIZITATEA- PROPAG.:ADM.OROKORRA	3.000,00	4.300,00	7.300,00
1 0100.221.920.00.01 2022	ENERGIA ELEKTRIKOA:UDALETXEA	3.697,89	2.700,00	6.397,89
1 0100.221.920.00.03 2022	GASA:UDALETXEA	2.664,92	1.500,00	4.164,92
1 0100.221.920.00.99 2022	BESTELAKO EROSKETAK:UDALETXEA	1.000,00	1.500,00	2.500,00
1 0200.226.920.00.04 2022	GASTU JURIDIKOAK	2.000,00	2.000,00	4.000,00
1 0600.222.920.00.05 2022	INFORMATIKADO KOSTUAK	52.289,91	2.000,00	54.289,91
1 0100.227.920.00.01 2022	GARBITASUNA:UDALETXEA	10.535,24	1.000,00	11.535,24
1 0200.226.920.00.99 2022	BESTELAKO GASTUAK:ADMO.OROKORRA	9.000,00	1.000,00	10.000,00

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1 0200.227.932.00.09 2022	GFA ZERGABILKETA ZERB:ZEGAK LOKALAK	6.500,00	1.000,00	7.500,00
1 0200.369.934.00.01 2022	BESTELAKO FINANTZA GASTUAK	4.087,50	4.000,00	8.087,50
1 0100.210.153.20.01 2022	MANTENIMENDUA:BIDE PUBLIKOEN ZOLADURA	30.000,00	30.000,00	60.000,00
1 0400.227.342.20.07 2022	AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK:KIROLDEGIA	0,00	5.500,00	5.500,00
1 0600.222.920.00.01 2022	TELEFONIKA:ADMON OROKORRA	5.112,60	2.000,00	7.112,60
	GUZTIRA	352.811,42	124.034,0 4	476.845,46

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

5.- KREDITUAK ALDATZEKO 20. ESPEDIENTEA: KREDITU GEHIGARRIAK.

Kredituak aldatzeko 20. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzailetak egindako txostena ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 20. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen partida	I. Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.221.165.00.01 2022	ARGITERIA PUBLIKOA	38.150,74	10.000,00	48.150,74
1 0100.221.342.20.01 2022	ENERGIA ELEKTRIKOA:KIROLDEGIA	39.254,00	35.400,00	74.654,00
1 0400.227.342.20.16 2022	KIROLDEGIKO EKINTZEN KUDAKETA	261.858,69	35.500,00	297.358,69
1 0400.226.334.10.08 2022	EKINTZAK:IKUZKIZUNA.KULT URA	29.902,00	6.000,00	35.902,00
1 0600.226.335.00.08 2022	EKINTZAK:EUSKERA	31.690,71	5.340,00	37.030,71
1 0600.601.491.00.10 2022	KOMUNIKAZIO PANELAK	0,00	4.000,00	4.000,00
1 0600.214.491.00.01 2022	MANTENIMENDUA:KOMUNIKA ZIO PANELAK	0,00	1.600,00	1.600,00
GUZTIRA		400.856,14	97.840,00	498.696,14

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2022	DIRUZAINZAKO GERAKINA:GASTU	97.840,00

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

		OROKORRETARAKO	
FINANTZAKETA GUZTIRA			97.840,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

6.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2022ko bigarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 7 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

7.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILTZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK.

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailtzak legezketasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2022ko urtarilaren 1etik 2022ko uztailaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1. eta 6. ERAGOZPENA: BUZONEOA DELA-ETA BAT EZ DATOZEN BI FAKTURAK.

2., 3. ETA 4. ERAGOZPENAK: INAUTERIETAKO KUKUMARROEN ZERBITZUARENGATIK BAT EZ DATOZEN FAKTURAK.

5. ERAGOZPENA: UDABERRIKO JOLAS PARKEAN BEGIRALE ZERBITZUARENGATIK BAT EZ DATOZEN FAKTURAK.

7. eta 8. ERAGOZPENAK. SAN PEDRO BEZPERAKO BURUHANDI ZERBITZUARENGATIK BAT EZ DATOZEN FAKTURAK.

9. ERAGOZPENA: SAN PEDRO BEZPERAKO DANBORRADAN BIZIKLETAK LEKUZ ALDATZEKO ZERBITZUARENGATIK BAT EZ DATORREN FAKTURA.

10. ERAGOZPENA: SANPEDROETAKO TXUPINAZORAKO EDARIAK EKARTZEAGATIK BAT EZ DATORREN FAKTURA.

11. ERAGOZPENA: PAPERAK, KARPETAK ETA KARTULINAK HORNITZEAGATIK BAT EZ DATORREN FAKTURA.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 7 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

8.- 2022ko UZTAILEAN ETA ABUZTUAN EMANDAKO ZERBITZUENGATIK E-GOITEK ENPRESAK AURKEZTUTAKO FAKTURAK ORDAINZEKO AGINDUA.

E-Goitek SLk 2 faktura aurkeztu ditu, 2022ko abuztuaren 5eko eta irailaren 9ko (54. eta 58. fakturak) egunekoak, 2022ko uztailean eta abuztuan emandako zenbait kirol-zerbitzuri dagozkionak.

2022ko irailaren 21ean egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, E-GOITEK SL) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

- E-GOITEK SLk aurkeztutako 2 fakturak ORDAINTZEKO AGINTZEA. Faktura horiek 2022ko abuztuaren 5eko eta irailaren 9ko (54. eta 58. fakturak) egunekoak dira, 2022ko uztailean eta abuztuan emandako zenbait kirol-zerbitzuri dagozkionak.

9.- IRUZURRAREN AURKAKO EUSKO JAURLARITZAREN PLANARI ATXIKITZEKO PROPOSAMENA.

Europako Kontseiluak 2020ko ekainaren 21ean onartu zuen Next Generation EU programa sortzea. Programa hori suspertze ekonomikora bideratutako tresna bat da eta Europar Batasunak bere gain hartutako finantza-neurri garrantzitsuenetako bat 2020an COVID-19ak eragindako aurrekaririk gabeko krisiari erantzuteko. Programa horrek datozen urteetan izango du eragina.

Next Generation EU finantza-tresnak elementu nagusi bat du “suspertze eta erresilientzia mekanismoa” (aurrerantzean, SEM): bere helburua da estatu kideetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea, susperraldi iraunkorra eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, justizia sozialean oinarritutako hainbat erreforma bultzatzea, bai maila nazionalean, bai eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoekin partekatutako gobernantzan. SEM suspertze-funtsaren zuzkidura globala 672.000 milioi eurokoa da; horietatik 360.000 milioi maileguetara bideratuko dira eta gainerako 312.000 milioiak itzuli beharrik gabeko transferentziak izango dira.

Suspertze Funtsaren muina Suspertzeko eta Erresilientziarako Mekanismoa (SBEM) da, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarritakoa. Helburua da estatu kideetan inbertsioak eta erreformak bultzatzea, susperraldi iraunkorra eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, Europar Batasunaren lehentasun ekologikoak eta digitalak sustatzea.

SEMak lau helburu nagusi ditu: Europar Batasunaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzea; Europar Batasuna osatzen duten estatu kideen erresilientzia eta doikuntza-gaitasuna indartzea; COVID-19aren krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak zuzentzea; eta trantsizio ekologiko eta digitala babestea. Horiek guztiak EBko ekonomien hazkunde-potentziala berreskuratzea, krisiaren ondoren enplegua sortzeko politikak sustatzea eta hazkunde iraunkorra bultzatzea bideratuta daude.

Helburu horiek lortzeko, Europar Batasuneko estatu kide bakoitzak sustapen- eta erresilientzia-plan bat diseinatu behar du, helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren erreformak eta inbertsio-proiektuak barne hartuta. Espainiako Estatuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (aurrerantzean, STEP) zeharkako lau ardatz ditu, 10 palanka politikotan

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario
2022/09/27

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

egituratuak, eta Planaren inbertsio eta erreformetarako programa koherenteak artikulatzea ahalbidetzen duten hogeita hamar osagai biltzen dituzte:

- Trantsizio ekologikoa.
- Eraldaketa digitala.
- Gizarte eta lurralde kohesioa lortzea.
- Genero berdintasuna.

STEPn planteatutako ekimenak ezarritako epean —2021etik 2026ra— gauzatzeko, inplikaturako administrazio publikoek neurri ugari hartu behar dituzte, besteak beste, honako hauek:

* Planean sartutako proiektuen kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitzea.

* Kudeaketa-sistema bat konfiguratzeko eta garatzea, Europako Batzordearen zerbitzuei ordainketa-eskaerak modu eraginkorrean izapidetzea errazteko, eskatutako estandarrak errespetatuz, bai ikuspegi formalek, bai operatibotik.

* Iruzuraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako prebentzio, detekzio eta borrokarako mekanismoak indartzea, iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren arabera definituak, eta estatu bakoitzeko legediek zuzentarau horren transposizioa egiteko epea 2019ko uztailaren 6an amaitu zen.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen iraileko HFP/1030/2021 Agindua ezartzen du Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (STEParen) neurriak gauzatzen parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok «iruzurraren aurkako neurrien plana» izan beharko duela, dagokion jarduera-eremuan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatzea eta deklaratzeko ahalbidetuko diona, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokionez (HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua).

Gainera, iruzurraren aurkako plan hori Agindua indarrean jartzen denetik 90 egun baino gutxiagoko epean onartu behar da, edo, hala badagokio, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren betearazpenean parte hartu dela jakiten denetik.

Udal honek laster Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren -STEP- funtsak kudea ditzakeenez, iruzurraren aurkako plan bat eduki behar da.

Eusko Jaurlaritzak, Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onartu zuen. Plan horren 2.2 artikuluan aurreikusten da plan hori beste edozein erakunde betearazle eta/edo kudeatzaile ere aplikatu dakiokela, baldin eta borondatez hala erabakitzen badu.

Udal honek bere Plana onartu arte, beharrezkotzat jotzen da Eusko Jaurlaritzaren planari atxikitzea eta, horrela, HFP/1030/2021 Agindua betetzea.

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Atxikitzea proposatzen den planaren eskakizunak bete ahal izateko, beharrezkoa da udal honek honakoak egitea:

- 1.- Iruzuraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzional bat sinatu eta web-orrian argitaratu beharko da.
- 2.- Iruzuraren aurkako Batzordea izendatzea.
- 3.- Kontratazio-, hitzarmen- eta dirulaguntzen prozesuetarako interes-gatazkarik ez dagoela adierazteko eredu bat onartzea.
- 4.- Erakundeko kideen kode etiko bat onartzea.
- 5.- Iruzuraren aurkako salaketa-postontzia izatea edo, gutxienez, beste erakunde baten salaketa-postontzi baten esteka bat argitaratzea bere webguneko gardentasunaren atalean, herritarrek, iruzur susmorik izanez gero, konfidentzialtasun osoz jardun ahal izan dezaten hori prebenitzeko.

Aurrez esandako guztia ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

1. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an (EHAA, 74. zk., 2022ko apirilaren 13koa) iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko onartutako neurrien planari atxikitzea.
2. Eskoriatzako Udaleko Iruzuraren aurkako Batzordea eratzea arriskuak ebaluatzen hasteko eta bertako kideak izendatzea:

Idazkaria-kontuhartzailea-diruzaina: Edurne Iturbe
Ekonomia zerbitzuko teknikaria: Maria Pilar Belategi
Kontuhartzaitzako teknikaria: Maria Pilar Biain
Ingurumen teknikaria: Saio Alzua

3. Eskoriatzako Udalak iruzurraren aurka borrokatzeko duen politikari buruzko adierazpen instituzionala onartzea, honekin batera 1. eranskin gisa doana.
4. Interes-gatazkarik ez dagoela adierazteko eredu onartzea. Eredu hori kontratazio-prozesuetan, hitzarmenetan eta dirulaguntzetan beteko da.
5. Eusko Jaurlaritzak 2016ko azaroaren 22ko 67. zenbakidun ebazpenaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen Testu Bateginari atxikitzea, Eskoriatzako Udalak bere jokabide-kodea egiten duen bitartean.
6. Salaketa bide bat martxan jartzea kudeatzea.
7. Erabaki hau eta bere eranskinak Udalaren egoitza elektronikoan argitaratzea, guztiek horren berri izan dezaten.

10.- 2023rako ORDENANTZA FISKALAK.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Indarrean dauden ordenantza fiskalak ez aldatzea eta 2022ko abenduaren 31n indarrean dauden zerga-tasak eta prezio publikoak mantentzea 2023rako.

EZTABAIDAN ESANDAKOAK:

Josu Ezkurdiak adierazi du, beste urte batzuetan bezala, iraila dela hurrengo urteko tasei eta zergei buruzko planteamendua egiten hasi behar den hilabetea, eta orain arte ohikoa izan dela tasak KPlaren igoeraren edo antzerako portzentajearen igoetzea, horrela zerbitzuen kostua finantzatu nahi zelako. Aurten, dioenez, kontuan izanik KPlaren igoera gehiegizkoa izan dela eta arazo ekonomikoak dituzten pertsona eta familia asko daudela, tasak eta zergak bere horretan uztea pentsatu dutela, ez igoetzea. Eta, gaineratu du, nahiz eta finantzarioki Udalaren aurka joan, Udalak igoetzea ez duena berdin ordaindu beharko duelako, ahalegina egin beharko duela kostuaren igoera hori herritarrei ez jasanarazteko. Amaitzeko, EAJ/PNV alderdiak datorren urterako tasak eta zergak ez igoetzea eta aurtengo zerga-tasa berak mantentzea proposatu du.

*Nestor Arana: gure aldetik, bi kontu edo kexa planteatu nahi ditugu. Lehenik eta behin, neurriarekin ados gaudela jakinarazi nahi dut. Eta kontuei dagokienez, lehenengoa da orain arte dinamika bat jarraitu duzuela ordenantzak lantzeko orduan: proposamena batzordera eramanez aurretik, aldeztu aurreko bilera batean helarazi diguzue zuen proposamena, jarrerak hurbiltzen saiatzeko; baina oraingoan ez duzue horrela egin, zuzenean eramanez duzue proposamena batzordera, zergatik aldaketa hori?

*Josu Ezkurdia: oraingoan, gure proposamena batzordearen aurretik helarazi badugu ere, ez dugu aldeztu aurreko bilera horretara deitu gure proposamena azaltzeko, guztiz argia zelako eta ez dugulako horren beharrik ikusi. Aldaketarik ez dagoenez, ez dugu ikusi gauza bat eta bestea zergatik planifikatzen diren azaltzeko azalpen teknikorik emateko beharrik. Eta hori argi izanda tasak mantentzea ez dela zerbitzu batzuen kostua igoko ez delako, baizik eta herritarren zati handi batek bizi duen egoeratik.

*Nestor Arana: beno, beste batzuetan ekarpenak egiteko aukera izan dugunez, oraingo honetan aukera hori ez dugula izan adierazi nahi genuen. Eta, bigarren kontuari dagokionez, kalkulatu al duzue neurri horrek Udalarentzat zer suposatzen duen ekonomikoki?



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Josu Ezkurdiak erantzun dio oraindik datu batzuk falta direla, eta adibide gisa aipatu du ez dakiela Mankomunitateak zenbat igoko duen hondakinen bilketa zerbitzua. Hala ere, kirol-jardueren kasuan, igoera % 20 ingurukoa izango dela aurreratu dezakeela esan du, eta, horren arazoak azaldu ondoren, kostua Udalak berak hartu beharko duela bere gain adierazi du.

*Nestor Aranek galdetu du ea horrek guztiorrek zer eragin izango duen udal aurrekontuetan.

Josu Ezkurdiak jakinarazi dio oso zaila izango dela orain jakitea egoera zein izango den, izan ere, urriaren erdialde-amaierara arte ez da foru funtsaren zenbatekoa jakingo, ezta funtzionarioen soldatak zenbat igoko diren ere; eta orain kalkuluak egiten ari direla zerbitzuen kostua zein izango den jakiteko. Hala eta guztiz ere, bere gobernu-taldeak, bai legegintzaldi honetan bai aurrekoan, argi eta garbi izan duela kudeaketaren oinarri izan beharko zela finantzak kontrolpean edukitzea, gastu arrunta diru-sarrera arruntarekin finantzatzea eta inbertsioak geldikinarekin edo maileguarekin finantzatzea; eta datorren urtean, aurrekoetan bezala, bere aukera inbertsioak gerakinarekin finantzatzea izango dela. Amaitzeko, esan du oraindik ez duela datu erreal nahikorik jakiteko zein izango den datorren urteko egoera, baina aurreratu du gastu arrunta handitu egingo dela prezioak igotzen ari direlako.

11.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 5. ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, 2022ko eranskinean aurreikusitako berrikustek aldatzeko beharra ikusi da zenbait udal arlotatik.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Euskara eta Gazteria batzorde informatzaileak, Kultura eta Kirola batzorde informatzaileak eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenen arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- EUSKARA 5. lerro estrategikoko HIZKUNTZ ERREFORTZUETARAKO DIRULAGUNTZAK C) programa 510 eurotan handitzea.

Bigarrena.- LANDA GUNEEN SUSTAPENA 8. lerro estrategikoko GOILARRE C) programa bertan behera uztea.

**Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario
2022/09/27**

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Hirugarrena.- KIROL SUSTAPENA 2. lerro estrategikoko ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEA B) programa 1.600 eurotan handitzea.

Laugarrena.- KIROL SUSTAPENA 2. lerro estrategikoko ESKOLA KIROLA A) programa 133,33 eurotan handitzea.

12.- GALDE-ESKEAK.

12.1.- Parke eolikoa.

Nestor Aranak, Norvegiako Stakraft enpresako ordezkariak Udaleko ordezkariekin bilera bat izan dutela jakin duela adierazi ondoren, bilera horretan jorratutakoari buruzko informazioa emateko eta informazio hori bizilagun guztiekin partekatzeko eskatu du.

Josu Ezkurdiak erantzun dio bilera hori egin zela, enpresak berak eskatuta, eta bertan parte hartu zutela alkateak, Udalaren ordezkari gisa, Antonio Regañok, garapen ekonomikoaren arloko zinegotzi arduradun gisa, eta berak, hirigintza arloko zinegotzi arduradun gisa. Aurreratu duenez, bere asmoa da, beti egiten duen bezala, proiektuaren berri ematea hurrengo hirigintza eta ingurumen batzordean, baina, hala ere, eta labur-labur esanda, esan dezakeela epe luzerako proiektua dela, ez dela gauzatuko ez 2 ez 3 urtean, eta 5 urterainoko ibilbidea izan dezakeela; une honetan oraindik azterketa teknikoak eta ekonomikoak egin behar dituztela, eta parkearen bolumenagatik Estatuko gobernuari dagokiola dagozkion baimenak ematea. Amaitzeko esan du bere udal-taldeari asko gustatzen zaizkiola horrelako proiektuak, Euskadiren subiranotasun energetikoa indartzen dutelako, kontuan hartuta Estatuan zein Europan energia berriztagarri gutxien ekoizten den lurraldea dela, eta horregatik salduta dagoela eta Errusiatik edo Amerikatik gasa eta energia ekartzera behartuta dagoela. Betiere, argitu du, argi izanda enpresa sustatzaileek ingurumenaren arloan indarrean dagoen araudi guztia errespetatu beharko dutela. Proiektuari dagokionez, jakinarazi du bertan 8 errota jartzea aurreikusten dela, horietatik 1 Eskoriatzan, eta 117.000 biztanle hornitzeko adina energia ekoiztea aurreikusten dela.

Nestor Aranak berriz ere esan du bere taldeak interesa duela bilera horretan parte hartzeko eta baita etorkizunean egingo diren ere, hau da, prozesu osoan parte hartzeko; halaber, herritarrei zuzenean parte hartzeko aukera emateko eskatu die, egoki irizitako galderak egin ahal izateko. Amaitzeko, bi eskaera zehatz horiek egiten dituztela errepikatu du.

Josu Ezkurdiak erantzun dio EHBILDUK prozesu honetan parte hartu ahal izango duela Udalaren beste edozein proiektutan parte hartzeko aukera duen bezala, beraiek proiektu guztiak batzordeetara eramaten dituztela informazioa emateko eta eztabaidatzeko, eta zentzu horretan, horri dagokionez ere ez dutela arazorik izango parte hartzeko.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:35ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Antes del inicio de la sesión, el Alcalde, en nombre de la corporación, muestra su máxima condena y repulsa ante el asonato machista de una mujer ocurrido en Benidorm.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el 26-06-2022 y 18-07-2022

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da traslado de las resoluciones dictadas por la Alcaldía hasta el día 21/09/2022.

De forma expresa se da cuenta de las resoluciones por las que se aprueban los expedientes nº 17 y nº 18.

3.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS EN EJERCICIOS ANTERIORES

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

22/01/01 etik 22/03/31 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK

IFZ	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	KUOTA	ERREKARGOA	GUZTIRA	ZERGATIA
B01215474	JARDUERA ENPR.	2013	33 A027025 420C	79,93	15,98	95,91	PREZKRIZIOA.G
B01215474	JARDUERA	2014	34 A027025 420B		20,76		PREZKRIZIOA.G

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

	ENPR.			103,83		124,59	
B20680526	JARDUERA						
	ENPR.	2017	37 A020875 4200	702,99	140,59	843,58	PREZKRIZIOA.G
B20680526	JARDUERA						
	ENPR.	2017	37 A020875 520W	527,22	105,44	632,66	PREZKRIZIOA.G
B43687375	JARDUERA						
	ENPR.	2017	37 A030132 2206	527,22	105,44	632,66	PREZKRIZIOA.G
B48300271	JARDUERA						
	ENPR.	2017	37 A022425 520D	246,05	49,21	295,26	PREZKRIZIOA.G
B75097030	JARDUERA						
	ENPR.	2017	37 A041940 720F	2.759,19	551,83	3.311,02	PREZKRIZIOA.G
B09397134	JARDUERA						
	ENPR.	2017	37 A025253 820J	492,08	98,41	590,49	PREZKRIZIOA.G
J01117555	JARDUERA						
